

# P.-T. Ducourrau naturalistaren kaierak

Biarritzeko XIX. mendeko aberediaren iruditegia

## Txilinporta txikia

Hegazti palmadunak / Urpekariak



### Ezaugarri fitxa

#### P.Th. Ducourrauren terminologia

Izen zientifikoa: **Podiceps minor Colymbus brisson**  
Frantseseko izena: **Grèbe castagneux**  
Sailkapena: **Hegaztia – 6. ordena – Palmadunak – 1. familia - Urpekariak**  
Beste izenak:

#### Gaurko terminologia

Izen zientifikoa: **Tachybaptus ruficollis**  
Frantseseko izena: **Grèbe castagneux**  
Euskarazko izena: **Txilinporta txikia**

#### Izena / Sailkapena

268 risso III, 77 – 6. ordena hegazti palmadunak – 1. familia – Urpekariak  
Colymbus brisson – Podiceps minor Lin. Gm. 594  
Grèbe castagneux  
Grèbe castagneux – Podiceps minor Lin.  
Dq Jaunak izendatua

#### Xehetasunak

Saihetsa – sudur-ziloa – moko zuzen eta zorrotza  
Hegaleko luma, buztanean ez du lumarik, ile tinki

### Eskuizkribuaren transkripzioa

batzuk

Saihetsez ikusia, itsasoko ur gainean igerika  
Animalia bera azpitik eta neurri naturalean

#### Deskribapena

Hegaldiarentzat guti egokitua den palmaduna, baina igeriketarentzat bai ordea.

A : lumatxa lodia eta leuna, txuri zilar kolorekoa azpian eta beltzaran gaztaina bizkarrean.

Palma forma berezia duten pata berde beltzaranak. Hiru hatz zabal, bakoitzak hiru eta bost artikulazio artean edo erhi-hezur dituenak, gehi garatugabeko hatz txiki bat.

Mintz erdi irekia duen palmaduna.

Aurreko 3 hatzak oinarrian baizik ez dira lotuak, gibeleda 4.a laburra besteak baino gorago da.

Hankak gibelerara dira, uzkiaren ondoan eta iduri du sabelean sartuak direla.

#### Oharrak

Neurri naturaleko marrazkiak

Augustin Larreat Jaunak hartua Euskaldunen kostan  
Biarritz, 1867ko abenduaren 4ean  
Biarritz, 1867ko abenduaren 2an.